
begoñazpi aldizkaria

2026KO IRAILAREN 25A

IKASTURTEARI ONDO ETORRIA EMONEZ



DBH 1. eta Batxilergo 1. mailako ikasleek, euren arteko hartu-emonak sendotzeko ezezik, ikasturteari hasiera emoteko be, lehen egonaldi eta ibilaldia egin dabe.

GEHIAGO

JANTOKIKO MIKROSITEA

GURASO BILERAK

HEZKUNTZA EZ-FORMALA



Heldu da garaia: Sarriara bidean!

DBH 1. mailako ikasleak ikasturte barriari ongi etorria emoteko eta alkarbizitza sustatzeko, hiru egunez egon dira Sarriako aterpetxean. Bertan ,"danok gara taldea eta inor ez dago taldetik kanpo" lelopean alkarregaz jolasteko, ikasteko eta gozatzeko modua izan dabe.


INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Ikasturtea hasteko, Laidara!

Batxilergoko 1. mailako ikasleek egun ederra emon dabe Laidako hondartzan. Piragua-jarduera egin eta gero, hainbat une eta gune partekatu dabe. Ez dago taldea osatu, alkar ezagutu zein harremanak estutzeko modu hoberik. Ikastolako ikasleentzat zein ikasturte honetan Ikastolara etorri barri diranentzat, esperientzia ezin hobea izan da.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Eskura dozuez elikadura-ohitura osasungarriak

Gure egunerokoan jantokiak garrantzi handia dauanez, familiok zerbitzu honek zelan funtzinonatzen dauan ezagutzea gura dogu. Webgunean eskuragarri dagoan jantokiko mikrositearen bidez badozuez menuak, errezetak eta seme-alabakaz sukaldean denpora gehiago emoteko proposamenak.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Guraso bilerak

Aste honetan izan dira Begoñazpi Ikastolako ikasturte hasierako bilerak. Guraso eta irakasleek ikasturte honetako ezaugarri zein gakoak partekatu eta alkar ezagutu dabe. Bertan izan dira, hurrengo hiletan ikasleekin egon eta honeei lagunduko deutseen zenbait irakasle.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Hezkuntza ez-formala martxan da

Daborduko hasi dira Begoñazpi Ikastolako hezkuntza ez-formaleko jarduerak. Aurten be, ikasleek hainbat proposamenetan parte hatzeko modua izango dabe. Hau guztia, interes barriez jabetzeko, trebetasunak jorratzeko nahiz beste modu baten ikasteko erabiliko diran espazioekin partekatuko da.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO